

Lorategiko festa



Lorategiko festa

Jatorrizko izenburua: *The Garden Party*

Egilea: Katherine Mansfield

Itzultzailea: Anton Garikano

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Elkar

Urrezko Biblioteka bilduma

MIKEL GARMENDIA

Ipuin modernoaren sortzailatzat hartzen da K. Mansfield eta Txhekhovok berarengan izandako eragina nabarmentzen. Eman digute gurean K. Mansfielden beraren nola haren idazkeraren berri bai Iban Balerdiren (*Gara*, 2012-02-11) bai Leire López Ziluagaren (*Berria*, 2012-01-22) kritika-lanek, bai eta Anton Garikano itzultzailearen *Lorategiko festa*ko hitzaurreak ere. Honela dio Garikanok hitzaurre horretan: “Hori da, azken batean, K.M.-en ardura: giza jokabidearen berri ematea, bere kontraesan eta gordintasunekin, modu poetikoan”.

Gehixeago zehaztuz, *Brill andereñoa* izeneko ipuina har dezakegu Garikanok aipatzen duenaren adibide, hortxe aurkituko baitugu agerian giza jokabidearen kontraesan eta gordintasuna: Brill andereñoa banku batean eserita dago bizitzari begira zoriontsu eta, aldi berean, aldamenean dagoen neska-mutil bikote gaztea Brill andereñoari iseka eta meziprezu eginez. Ipuin honetako –eta besteetako– giroak haxe iradokitzen digu: ezer gertatzen ez denean ere gauza asko gertatzen dira.

Eta hori guztia modu poetikoan egiten duela esaten digu Garikanok. Modu poetiko hori ere gehixeago konkretatu nahiz, aipatutako giroez gain, narratzailearen ahotsa iruditzen zait dela klabea ipuinen amaierekin batera, zeinak ez baitira ez guztiz itxiak ez guztiz irekiak: norabide bat iradokitzen dute, hautazkoa betiere.

Ateratzen hasia da, horrenbestez, Urrezko Biblioteka bilduma eta haxe dugu bilduma horretako bigarren alea. Bertsio zuzendua dugu, beraz, *Lorategiko festa* –lehenengo bertsioan *Lorategiko festa eta beste kontakizun batzuk*– eta material aproposa dugu, noski, bi bertsioak konparatzeko eta, lehenengo bertsiotik hona igarotako hamalau urteko tartean, hizkuntzan, estiloan, itzultzeko moduetan (eta igarotako tartea oso handia ez bada ere, are balio eta pertzepzio kulturaletan ere) izandako aldaketak aztertu eta ondorioak ateratzeko. Esan dezagun, adibidez, lehen bertsioan *Ezkontza à la mode zena* *À la mode ezkontza* bihurtu zaigula eta *Familia ideal bat*, berriz, *Familia eredu garria*. Hari honi tiraka, hortxe dugu eztabaidatzekoa: bertsio zuzenduak ala berrizulpenak behar ditugu? Noiz batzuk eta noiz besteak?

Lorategiko festa ipuin-bildumaren euskarazko bertsio hau benetan gomendagarria eta interesgarria izateaz gain, itzulpen-konparaketarako material aproposa ere bada orain. Estimatzekoa benetan.